

OKIL BELTZA, ZUHAITZ-TXIKITZAILE ZORROA

Testua eta argazkiak: **Jose Ramon Aihartza**

ORAIN dela urte batzuk, Nafarroako Larraren hegoaldean dagoen Haztaparretako lepoan genbiltzala aurkikuntza txundigarria egin genuen: pago zahar bat inguratzean, berau 3 m-ko altueraraino erabat "hustuta" zegoela jabetu ginen. Gainera, zura freskoa zegoen artean, eta ahul itxura zuen arren, ezin zitekeen ustelduta zegoenik esan. Zerk egin zezakeen halako txikiziorik? Enbor-ipurdian 5 cm inguruko luzera eta cm inguruko zabalerako ezpala txikiez osatutako pilo handia ikus zitekeen. Bestalde, zuhaitzaren zuretara eztenkada zorrotzen arrastoak ageri zitzaizkigun argigarri gisa. Erantzuna bapatekoa bezain sineskaitza gertatu zitzaigun: lan ikaragarri hura hegazti



Okil beltzaren fitxa teknikoa eta Euskal Herrian duen banaketa-mapa.

FITXA TEKNIKOA	OKIL BELTZA
ESPEZIEA:	<i>Dryocopus martius</i>
FAMILIA:	PICIDAE
ORDENA:	PIZIFORMEAK
KLASEA:	HEGAZTIAK

BANAKETA-MAPA



batek burutua zen, okil beltzak egina alegia.

Okil beltza (*Dryocopus martius*), gainerako okilekin batera pizidoen familian sailkatutako hegazti bikaina du, eta talde honetako beste

kideak bezalaxe bizimodu arborikolarako egoki moldatutako animalia da.

Okilak intsektiboroak dira, eta zuhaitz-enborretan, azalean nahiz zuraren barnean, bizi diren ornoga-

beez elikatzen dira. Horretarako moko luze eta sendoa dute, eta berari esker zura zulatu eta puskatzeko gai dira. Bestalde, hegazti hauen mihia protraktila eta oso luzea da, eta muturrean zetaz hornituta ageri da bere ehizakiei hobeki eusteko, listu itsaskorra ere lan honetan lagungarri gertatzen delarik. Hanka laburrak hatzamar luze eta indartsuz armatuta dauzkate. Izan ere denbora gehiena zuhaitz-enborretan gora eta behera ematen bait dute ehizaki bila. Joera lauzikatzaile honen ondorioz halaber, okilen isatseko lumetako ardatzak alantrea bezain gogorak izaten dira. Hegaztia berauetan sostengatzen da enbor bertikalari atzaparrez eutsita tente mantentzeko.

Okil beltza Europako okilen arteko handiena da, 45-48 cm-ko luzera eta 70-75 cm-ko hegaltzabalea izanik; ia belearen tamainakoa bait dugu. Bere koloreak eta itxura orokorra ere oso deigarriak dira:



Okilak intsektiboroak dira, eta zuhaitz-enborretan, azalean nahiz zuraren barnean, bizi diren ornogabez elikatzen dira. Horretarako moko luze eta sendoa dute, eta berari esker zura zulatu eta puskatzeko gai dira.

Bere koloreak eta itxura orokorra ere oso deigarriak dira: lumaje beltza du erabat buru gainean izan ezik, bertan marra gorri zabala ageri duelarik. Marra gorri hau oso nabarmena du arrak.

lumaje beltza du erabat buru gainean izan ezik, bertan marra gorri zabala ageri duelarik. Marra gorri hau oso nabarmena du arrak. Emean aldiz, hegaztiaren garondan kokatutako orbain txiki bat baino ez da izaten. Moko berriz gris argia izaten du, eta begiak zuri-horiskak. Itxura orokorrari dagokionean, baldar samarra dela esan daiteke. Alegia, okil beltzaren moko eta burua oso handiak dira bere lepo mehearen aldean, eta hankek eta isatsak ere laburrak dirudite, oro har hegaztiaren soinak diseinu bereziko soslai eskeintzen duelarik. Honi begi zurisken behako zorrotza gehitzen badiogu, eta animaliak bere lurraldekoitasuna aldarrikatzeko botatzen duen kantuak maniako baten tajurik gabeko irria dirudiela kontutan hartuz, erraz uler daiteke okil beltza hegazti zorrotzat jo izana.

Okil beltza Europa eta Asiako oihan boreal eta epel zaharretan bizi da, eta ale gazteen kasuan izan

Euskal Herriko Fauna



Udaberria iristen denean, okil beltzek, bikotea osatu ondoren, zuhaitz sendo eta handi bat aukeratzen dute, eta mokoaz zura zulatuz 20 cm diametro inguruko ganbara bikaina eraikitzen dute enborraren barnean.



ezik bizimodu sedentarioa egiten du. Iberiar penintsulan Pirinioetan, Kantaurialdeko mendietan eta Sistema zentrolean bakarrik ikusi izan da, azken gune honetan populazio erreluktiko bat baino ez dagoelarik. Euskal Herrian berriz, Pirinioetan eta hauen inguruetakopagadi, izeidi, eta mendi-pinudietan bizi da batipat, 800 eta 1.600 m-ko altueren bitartean, eta pixkanaka ler gorritz (*Pinus sylvestris*) osatutako landaketa zaharrak ere onartu ditu bizilekutzat. Baso hauetan, eta otsailetik aurrera, nonnahi entzun daiteke okil beltz arraren tarrapatada-hots ozena. Tarrapatada hau atabal-erredoble lehor eta azkarraren modukoa izan ohi da, eta hegaztiak bere moko sendoaz adar ihartu bat joz sortzen du, bere bitartez emeak eta gainerako arrak oharterazten dituela.

Esan bezala, okilak intsektujaleak dira batez ere, eta tarteka pinu-hazirik edota pagazirik jaten duten arren, hauek bere dietaren osagai urrienak baino ez dira. Aldiz, intsektu kortikalak —zuhaitzenborretan bizi direnak—, eta koleoptero xilofagoak —zura janez elikatzen direnak— dira okil beltzaren ehizakirik gogokoenak, eta hauek harrapatzeko behin eta berriro zulatzen ditu zuhaitzenborrak, egindako zuloak gehienetan okila dagoela adierazten duten daturik nabarmenenak izanik. Era

berean, inurritegiren bat aurkitzen duenean ere ez du zalantzarik izaten lurrera jaisteko, eta bere mihi luzeaz baliatuz ase arte aritzen da bertan. Batzuetan, gaixorik edota ustelduta dauden zuhaitzak mota guztietako kolepteroz edo hauen larbez josita egoten dira, eta horrelakoetan okil beltzak birrindu egiten du zuhaitza erabat, ezpal-piloa baino geratzen ez den arte. Honela bada, begibistakoa dugu okil beltzak —eta gainerako okilek— intsektu hauen populazioen kontrollean duen garrantzia, eta baita zur hilaren deskonposizio-prozesuan ere; enborrak txikituz, ornogabe, onddo, bakterio, eta gainerako deskonposatzaileen lana errazten eta azkartzen bait du.

Udaberria iristen denean, okil beltzek, bikotea osatu ondoren, zuhaitz sendo eta handi bat auke-

ratzen dute, eta mokoaz zura zulatuz 20 cm diametro inguruko ganbara bikaina eraikitzen dute enborraren barnean. Ganbara honen atari eliptikoa normalean hegoalderantz begira kokatuta egoten da. Apirilaren azkenetan edota maiatzean emeak 4-5 arrautza zuri jartzen ditu bertan, eta txitoak 12-14 egunen buruan jaioko dira mundura, beren elikadura ar eta emearen kargu burutzen delarik. 20 egunetara txitoak jadanik habi ataritik kanpora begira hasiko dira, eta 27. egunerako irten eta inguruak miatzen. Hala ere oraindik txitoen elikadura gurasoen esku izango da, eta talde familiarra ez da bananduko bi hilabete igaro artean.

Aipatutakoaren arabera, eta oihanetako intsektiboro gehien kasuan bezalaxe, begibistakoa da okil beltzaren iraupena oihan zabal eta helduenarekin lotuta dagoela erabat; zuhaitz zahar eta handiak derrigorrezkoak bait ditu habia egiteko, eta era berean honelako oihanetan aurkitzen bait ditu ugari bere elikaduraren osagai nagusi diren intsektuak. Honela bada, oihan zaharrez osatutako guneak mantentzeak eta bertatik gaitutako edota usteltzen hasitako zura ez ateratzeak duen garrantzia nabaria da, bai okil beltzari, eta bai oihanetako intsektujale gehien dagokienean ere.